

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

XAKEA, DANTZA MODERNOA, EUSKAL DANTZA, ESKU PILOTA, FUNKYA, GIMNASIA AKROBATIKOA, GIMNASIA ERRITMIKOA, JUDOA, PREDANTZA, TENISA

- Eskolaz kanpoko ekintzetan eta GEak antolatutako edozein jardueratan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da GEko kide izatea eta urteko kuota ordainduta izatea.
- Proposatutako eskolaz kanpoko ekintzak aurrera eramango dira baldin eta taldea sortzeko adina ikasle badaude; beraz, talderik ez bada sortzen, ez dago behin betiko onarpenik. Talderik ez bada sortzen, familiei jakinaraziko zaie eta, ahal bada, euren intereseko beste aukera batzuk eskainiko zaizkie. Kasu horietan GEak ez du izango ekintza horiek ziurtatzeko erantzukizunik ez konpromisorik.
- Eskuarki, jarduera guztietan lehentasuna izango dute beste eskabideen aurrean aurreko urteko azken hilabeteen (maiatzean) izen emanda zeuden ikasleek. Dena dela, ikasleen eskaera ekintza baten eskaintza baino handiagoa denean, itxarote-zerrenda bat osatuko da eta familiei jakinaraziko zaie lekua izanez gero. Itxarote-zerrendako ordena erabiliko da ekintza edo egun aldaketen eskaeren aurrean ere.
- Ikasleak eurak bakarrik joango dira eguerdiko jardueretara, horren ardura euren baita, baina HH eta LH1eko ikasleak monitoreak jasoko ditu eta berriro itzuliko behar den tokira. Arratsaldeko jardueretan, berriz, hori guztia familien ardura izango da.
- Normalean gurasoak ezin dira jardueretan egon; halere, hasieran azaldu daitezke beharrezkoa izanez gero, jantzi aldaketa egiteko, esaterako. Kasu horietan ahalik eta denbora laburrena egongo dira eta beti, leku egokietan (aldageletan, esaterako).
- Jarduera bakoitzean monitorearen ardura izango da ikasleak datozen ala ez kontrolatzea.
- Ekintzak egiteko, ikasleek izen emate orria bete beharko dute, egunak eta orduak adieraziko dituztelarik.
- Ordainagiriak adierazitako banku-kontutik kobratuko dira modu honetan: urriaren 5ean, lehenengo lauhilabetekoa eta otsailaren 5ean, bigarrenekoa.
- Jardueran parte hartzeko, ezinbestekoa da banku-zordunketa onartzea.

- Jardueretan hasteko eta jarduerak uzteko GEari adierazi beharko zaio helbide elektroniko honen bidez: extraescolaresampadonostia@lasalle.es.
- Kobrantza lauhilabetekoa denez, lauhilabetekoan zehar ez da ordainagiririk itzuliko baja izateagatik.
- Jarduera batean ordaindutako dirua bakarrik itzuliko da baldin eta ikaslea klaseen % 100etara faltatu izan bada arrazoi fisikoren batengatik eta sendagilearen agiria aurkeztu ondoren.
- Jardueran baja hartu nahi bada, GEari jakinarazi beharko zaio bajaren aurreko lauhilabetekoa bukatu baino lehen; horrela egin ezean, kobratu egingo da hurrengo lauhilabeteko jarduerari dagokion kuota.
- Helbideratutako ordainagiriaren itzultzeagatik sorturiko gastuak, kontuaren titularrak ordaindu beharko ditu.
- Jarduera ez ordaintzeak ikaslearen kanporatzea ekar lezake, eta ez da berriro onartuko ordainketak eguneratu arte.
- Familia ugariak % 30eko beherapena izango dute, baldin eta hiru seme-alaba edo gehiago Donostiako La Sallen ikasten ari badira.
- Ikaslearen familiak aitortzen du zirkular honetan dauden zerbitzu-baldintza guztien berri jaso duela. Beste alde, informazio gehiago eska dezake GEan bertan edota helbide elektroniko honetan: extraescolaresampadonostia@lasalle.es.